



ctb

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

PRENTSA-OHARRA

KATALUNIako AUTORITAT DEL TRANSPORT METROPOLITÀ ERAKUNDEAK BARIK TXARTELA MUGIKORRAREN BITARTEZ KARGATZEKO APLIKAZIOAREN PATENTEA ERABILI AHAL IZATEA ESKATU DIO BGP-RI

- Bizkaiko erakundearen eta Kataluniako entitate publikoaren arteko lankidetzari esker, “T Mobilitat” proiektua abian jartzeko laguntza izango dute. Hain zuzen ere, Kataluniako lurralde osoan garraioa kudeatzeko sistema teknologiko eta tarifario berri bat ezartzean datza.
- Carme Fábregas, ATMko Sistemak eta Berrikuntza burua: “Berrikuntza ikaragarria da, eta Bartzelonaz gain munduko beste hiri batzuetan ere egokitzat jotzen dute, hala nola Dubain. Hori dela eta, Bilbo erreferentzia izango da mundu osoan”.
- Espainiako Patenteen eta Marken Bulegoak iaz aitortu zuen patenteak Bizkaiko Garraio Partzuergoari ematen dio abala, I+G+b eremuan aitzindaria, berritzailea eta abangoardista dena; hori guztia, garraio publikoaren bidez Bizkaia gero eta hobeto lotu eta kohesionatzeko helburuarekin.
- “Barik NFC” aplikazioan 400.000 kargatzeak gainditu dira. 2017. urtean, 171.442 kargatze egin ziren, eta ekainean 23.799. Hasieratik, guztira, 108.230 alta erregistratu dira aplikazioan. Gaur egun, 1.650.000 Barik txartel baino gehiago daude aktibatuta.

Bilbon, 2018ko uztailaren 13an.

Bartzelonako metropoliko Autoritat del Transport Metropolità (ATM) entitateak Barik txartela mugikorraren bitartez kargatzeko aplikazioaren patentea erabili ahal izateko eskaera egin dio Bizkaiko Garraio Partzuergoari, eta BGPko Kontseilu Nagusiak lankidetzara onetsi zuen aurreko hilabetearen amaieran egindako bileran.

ATM “T-mobilitat” proiektua garatzen ari da, eta, hain zuzen ere, Kataluniako lurralde osoan garraioa kudeatzeko sistema teknologiko eta tarifario berri bat ezartzean datza. Horren barruan dago “T-Mobilitat txartelean gailu mugikorretarako NFC teknologia-irtenbidea diseinatu, ezarri, abian jarri eta horren bilakaera egiteko” kontratua. Proiektu horretan, halaber, BGPk patentatuta duenaren antzeko metodoa erabiliko da. Hori izan da “NFC terminal baten bitartez, txartel adimendunak birkargatzeko metodoa eta sistema garraio-txartel gisa erabiltzeko” izeneko asmatze-patentea ATMk erabiltzeko arrazoia.



ctb

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

Bizkaiko erakundearen eta Kataluniako entitate publikoaren arteko lankidetzari esker, “T-mobilitat” proiektua abian jartzeko laguntza izango dute. Hain zuzen ere, Kataluniako lurralde osoan garraioa kudeatzeko sistema teknologiko eta tarifario berri bat ezartzean datza. BGPk egindako garapenak erabili ahal izango dituzte, kostu gutxiagoan eta ezartzeko epe laburragoan. ATMk eta BGPk elkarrekin lan egin ohi dute eta informazioa partekatzen dute inolako irabazi asmorik gabe; horrela, beste lurralde batzuetako ezagutzetatik eta aurrerapen teknologikoetatik etekina lortu ahal dute. Ildo horretatik ere abiatuko da bi entitate publikoen arteko lankidetzeta-hitzarmena.

Bartzelonako metropoliko Autoritat del Transport Metropolità entitatetik, Carme Fábregasek, ATMko Sistemak eta Berrikuntza buruak, eskerrak eman dizkio BGPri hain eskuzabala izateagatik, eta esan du une honetan jorratzen ari diren eraldaketa digitalerako proiektu nagusian erabiliko dutela, hau da, T-mobilitat proiektuan. Fabregasek nabarmendu du Bizkaiko aplikazioa bakarra dela munduan. “Berrikuntza ikaragarria da, eta Bartzelonaz gain nazioarteko beste hiri batzuetan ere egokitzen jotzen dute, hala nola Dubain. Hori dela eta, Bilbo erreferentzia da mundu osoan”, adierazi du.

Bestalde, ATMko Sistemak eta Berrikuntza buruak azpimarratu du garraioaren alorrean sortutako berrikuntza oso garrantzitsua eta pozgarria dela. “Garraio publikotik eta garraio publikoarentzat egin da, eta ez hainbeste industriatik; izan ere, horrek jabetza industrialen mende egotea ekarriko luke, eta ezin izango litzateke modu guztiari, herritarrei, egokitu eta aplikatu. Ez dago inolako zalantzarik, balio handia du. Garraio publikoaren sistemak jarduteko moduan abiapuntu izan da, eta urrats bat gehiago lagun eta erreferentzia den Bizkaiko Garraio Partzuergoarekin dugun harremanean”.

“Asmakizun bat babesteko moduko terminoaren zentzu hertsian”

2017ko uztailan, Patenteen eta Marken Espainiako Bulegoak Bizkaiko Garraio Partzuergoari (BGP) Patente titulua eman izana argitaratu du, sistema orokorraren segurtasuna gordez Barik txartela telefono mugikorraren bidez kargatzeko prozedura aitzindariagatik. Bi urte iraun duen prozesu metodiko baten ostean, azkenean, estatu eremuan hogeitau urteko iraupena duen patentea lortu du. Erdietsitako arrakasta horri esker egiaztatu da Bizkaiko Garraio Partzuergoa I+G+b eremuan aitzindaria, berritzailea eta abangoardista dela; hori guztia, garraio publikoaren bidez Bizkaia gero eta hobeto lotu eta kohesionatzeko helburuarekin.

Patenteen eta Marken Espainiako Bulegoak aitortu du telefono mugikorraren bidez Barik txartela kargatzeko prozedura erabateko asmakuntza bat dela babesari dagokionez. Hain zuzen ere, horregatik eman diote patentea. Patente bat lortu ahal izateko hainbat baldintza bete behar dira, besteak beste, berria izatea eta berrikuntza hori industrian aplikatu ahal izatea. Duela hiru urte hasi zen patentea eskatzeko prozesua. Patentea



bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

lortzeko prozesu zorrotz bat gainditu behar da, non berritasuna aztertzen den. Horrez gain, mundu osoan miaketa bat egiten da, asmakizuna patentatu daitekeen edo ez zehazteko.

400.000 kargatze baino gehiago

“Barik NFC” aplikazioan 400.000 kargatzeak gainditu dira 2017. urtean 171.442 egin ziren, eta ekainean 23.799 Hasieratik, guztira, 108.230 alta erregistratu dira aplikazioan. Gaur egun, 1.650.000 Barik txartel baino gehiago daude aktibatuta.

2016ko martxoaren 1az geroztik, posible da Barik txartela sakelako telefono adimendun batetik kargatzea. BGPk Google PlayStore-n aktibatu zuen aplikazio hori. Hari esker, denbora laburrean txartela kargatzeko milaka puntu berri erantsi ahal izan dira, eta Bizkaian banatutako 800 fisikoei gehitu zaizkie (tabako dendak, kioskoak, kutxazainak, geltokiak...). Aplikazio berriari esker, erabiltzaileak edozein Barik kargatu ahal izango du, nahi beste aldiz, edozein tokitatik eta eguneko edozein ordutan. Horrez gain, geratzen den saldoari, azken mugimenduei eta beste gauza askori buruzko informazioa lortu ahal izango du.

Gaur egun, 1.650.000 Barik txartel baino gehiago daude aktibatuta

Txartelen sistemen eremuan izaten diren azken aurrerapen teknologikoak, pixkanaka, Bizkaian ezarri nahi ditu BGPk; hain zuzen, proiektua BGPren politika horren barruan sartzeko da. Lortutako datuei erreparatuz gero, arrakasta handia izan duela esan daiteke, hasierako itxaropenak gainditu baitira. Aplikazioa abian jarri aurretik, Barik txartelaren ohiko puntuetan kargatu ahal zitekeen txartela (Metro Bilbao, Euskotren Trena, Euskotren Tranbia, Renfe –FEVE barne-, Larreinetako funikularra, Artxandako funikularra, Bilbobus eta Bizkaibuseko kabinak, tabako dendak, kioskoak, merkataritza lokalak eta BBK-ko kutxazainak); eta 2015eko abenduaz geroztik webgunean bertan (ctb.eus) ere egin daiteke. Gaur egun, 1.650.000 Barik txartel baino gehiago daude aktibatuta.